

IRAKASKUNTZA-GIDA 2017/18

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa Zehaztugabea

IRAKASGAIA

25072 - Psikogerontologia

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Psikogerontologia irakasgaiaren helburu nagusiak bi dira. Batetik, psikogerontologiaren dimentsio psikosozialak aztertzea eta bestetik, psikogerontologiaren alde aplikatua lantzea. Horretarako, irakasgaia zazpi ataletan banatuko da. Lehenengo atalean, zahartzaroaren sarrera izango da hizpide. Bigarren atalean, zahartzaroaren garapen fisiko eta psikomotorea izango da mintzagai. Hirugarren atalean, erretiro prozesuaren adaptazioa azalduko da. Laugarren atalean, garapen sozio-afektiboa eta nortasuna zahartzaroan izango da aztergai. Bosgarren atalean, zahartzaroaren garapen kognitiboa aztertuko da. Seigarren atalean, zahartzaroko buru nahasketak aztertuko dira, bereziki demenziak. Azkenik, zazpigarren atalean, giza garapena behar bezala ulertzeko heriotza eta doluari buruz hausnartuko da.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Zahartzean gertatzen diren aldaketa kognitiboak, emozionalak eta sozialak ezagutzea.
2. Psikogerontologiaren alorreko orientazio teorikoak ezagutzea.
3. Esku hartze gerontologikoaren eskaerak identifikatzeko gai izatea, hainbat testuingurutan. Hirugarren adinekoen psikologiaren alorrean ebaluaziorako tresna espezifikak erabiltzeko gai izatea.
4. Esku hartzeko estrategiak diseinatzeko, aplikatzeko eta ebaluatzeko gai izatea, Hauek sortutako aldaketei hobeto aurre egiteko: erretiroak, galera afektiboak, kognizio-aldaketek edo nor bere heriotzari aurre egiteak.
5. Lanbide anitzeko taldeetan lan egiteko gai izatea.
6. Ahozko nahiz idatzizko txosten teknikoak egiteko gai izatea.
7. Psikologoak psikogerontologiaren arloan dituen funtzio eta ardura etikoak ezagutzea.
8. Psikologoak psikogerontologiaren arloan dituen funtzio eta ardura etikoak ezagutzea.
9. Psikogerontologiari buruzko dokumentazio-iturriak erabiltzeko gai izatea, eta informazioa eskuratzeko behar diren estrategiak menderatzen direla erakustea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. Gaia: Sarrera
2. Gaia: Zahartzaroaren garapen biologikoa
3. Gaia: Jubilazio prozesuaren adaptazioa
4. Gaia: Garapen sozio-afektiboa eta nortasuna zahartzaroan
5. Gaia: Zahartzaroaren garapen kognitiboa
6. Gaia: Nahasketa emozionalak eta kognitiboak zahartzaroan.
7. Gaia: Bizitzaren amaiera: agonia eta heriotza

METODOLOGIA

Distribución de horas

Magistral Semin. P.aula P.labor. P. orden. P. klínikoa Taller Taller indiv. P. campo

35 0 7 0 0 0 18 0 0

Gelako praktketan eta tallerretan erabilitako metodologia ikaslearen gidan E-gelan eskuragarri dago.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	35		7				18		
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	52,5		10,5				27		

Legenda:

M: Macistrala

S: Mintecia

GA: Gelako p.

GL: Laborateiko p.

GO: Ordenaailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 60
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 10
- Banakako lanak % 10
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 10
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAZIO SISTEMA

Bi ebaluazio aukera daude:

1.Ebaluazio jarraitua:

•Ezagutza teorikoak azterketa teoriko baten bidez ebaluatuko dira (6 puntu).

•Ezagutza praktikoak eta konpetentziak, ikasleak egindako lan praktikoan, txostenen eta aurkezpenen, jarduera praktikoetan parte-hartzearen eta koordinazioaren bidez ebaluatuko dira (4 puntu).

2.Ebaluazio finala:

•Ezagutza teorikoak azterketa teoriko baten bidez ebaluatuko dira (6 puntu).

•Ezagutza praktikoak, ikasleak egindako lan praktikoan eta txostenen bidez ebaluatuko dira. Horretarako beharrezkoa izango da aldez aurretik irakaslea eta ikaslearen arteko adostasuna eskolen hasierako lehen hilabetean (4 puntu).

Ebaluaziorako irizpideak:

1.Ebaluazio jarraitua:

Ezagutza teorikoaren ebaluazio 6 puntukoa da. Azterketa dagokion egun ofizialean egin eta gainditu behar da (ebaki puntua 3).

Ezagutza praktikoan ebaluazioa 4 puntukoa da. Ikasleak taldeka antolatuta, irakasleak programa praktikoaren atalean zehaztu duen moduan entregatu behar ditu txostenak. Txostena entregatzeko eta azaltzeko data kronograman zehaztua dago. Txosten bakoitzaren ebaluazioa 1,33 puntukoa da.

2.Ebaluazioa finala:

Ezagutza teorikoaren ebaluazioa 6 puntukoa da. Azterketa dagokion egun ofizialean egin eta gainditu behar da (ebaki puntua 3).

Ezagutza praktikoan ebaluazioa 4 puntukoa da. Irakaslearekin aldez aurretik adostutako txostenak aurkeztu behar dira.

Oharrak:

1.Atal teorikoaren eta atal praktikoaren emaitza haztatua gehitzeko, beharrezkoa izango da gutxienez, atal teorikoan 6tik 3 eta atal praktikoan, 4tik 2 lortzea. Nolanahi ere, Aktetara (GAUR) azterketa teorikoan lortutako emaitza ipiniko da.

2.Irakasgai honetan, aski izango da etsaminara ez agertzea, deialdiari uko egitea.

ESPERO DIREN IKASKUNTZAREN EMAITZAK

1Zahartzean gertatzen diren aldaketa kognitiboak, emozionalak eta sozialak azaltzea.

2Psikogerontologiaren alorreko orientazio teorikoak deskribatzea.

3Esku hartze gerontologikoaren eskaerak identifikatzea, hainbat testuingurutan. Hirugarren adinekoen psikologiaren alorrean ebaluaziorako tresna espezifikoak erabiltzea.

4Esku hartzeko estrategiak diseinatzea, aplikatzea eta ebaluatzea. Hauek sortutako aldaketei hobeto aurre egiteko: erretiroak, galera afektiboak, kognizio-aldaketek edo nor bere heriotzari aurre egiteak.

5Taldeen lan egitea.

6Ahozko nahiz idatzizko txosten teknikoak egitea.

7Psikologoak psikogerontologiaren arloan dituen funtzio eta ardura etikoak azaltzea.

8Psikologoak psikogerontologiaren arloan dituen funtzio eta ardura etikoak deskribatzea.

9Psikogerontologiari buruzko dokumentazio-iturriak erabiltzea, eta informazioa eskuratzeko behar diren estrategiak menderatzen direla erakustea.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Lizaso, I. eta Aizpurua, A. (2010). Alzheimer motako demenzia: zer da eta zer egin? Bilbao:UEU.

Lizaso, I; Leturia, P. eta Yanguas, J.J.; (2009). Esku-hartze psikologikoa gerontologian. Donostia: Erein.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- Belsky, J. (2001). *Psicología del envejecimiento*. Madrid: paraninfo.
- Birren & Schaie (2001). *Handbook of the psychology of aging*. San Diego: Academic Press.
- Fernández-Ballesteros, R. (2009). *Psicología de la vejez. Una psicogerontología aplicada*. Madrid: pirámide.
- Montorio & Izal (1999). *Intervención psicológica en la vejez*. Madrid: síntesis.
- Muñoz, J. (2002). *Psicología del envejecimiento*. Madrid: Pirámide
- Pinazo, S., & Sánchez, M. (2005). *Gerontología, actualización, innovación y propuestas*. Madrid: Pearson.
- Schaie & Willis (2003) *Psicología de la Edad Adulta y la vejez*. Madrid: Pearson Educación
- Triadó, C., & Villar, F. (2006). *Psicología de la vejez*. Madrid: Alianza.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Buendía, J. (1994). *Envejecimiento y psicología de la salud*. Madrid: Siglo XXI.
- Fernández-Ballesteros, R. (1999). *Qué es la psicología de la vejez*. Madrid: Biblioteca nueva.
- Fernández-Ballesteros, R. (2000). *Gerontología social*. Madrid: pirámide.
- Fernández-Ballesteros, R. y cols. (1991). *Evaluación e intervención psicológica en la vejez*. Barcelona: Martínez Roca.
- Lehr & Thomae (2003). *Psicología de la senectud*. Barcelona, Herder.
- Lizaso, I. (2005). *Hirugarren Adinekoen Psikologia. Ebaluazio eta Jardunketa baliabideak egoitzetan. Practicum Psikoedukatiboa. Psikologia Fakultatea*. Bilbao: Servicio editorial de la Universidad del País Vasco. ISBN: 84-8373-763-9 <http://testubiltegia.ehu.es/>
- Lizaso, I. (2007). *Erretiratuen soslai berriarekin erlazonatutako ezaugarri sozio-demografiko eta psikosozialak*. Bilbao: Servicio editorial de la Universidad del País Vasco. ISBN: 978-84-690-3957-1 <http://testubiltegia.ehu.es/>
- Lizaso, I. eta Camio, S. (2005) *Zahartzaroan oroimena nola trebatu. Funtzionamendua, ariketa praktikoak eta balioespen tresnak*. Bilbao: Servicio editorial de la Universidad del País Vasco. ISBN 84-8373-730-2. <http://testubiltegia.ehu.es/>
- Lizaso, I. eta Camio, S. (2006). *Zahartzaroko antsietate eta depresio kasuei aurre egiteko baliabideak*. Bilbao: Servicio editorial de la Universidad del País Vasco. ISBN: 84-689-9538-X <http://testubiltegia.ehu.es/>
- Perlmutter & Hall (1992). *Adult development and aging*. Canada: Wiley.
- Vega & Bueno, B. (1995). *Desarrollo adulto y envejecimiento*. Madrid: Síntesis.

Aldizkariak

- Revista Española de Geriatria y Gerontología
- International Journal of Aging and Human Development
- Journals of Gerontology
- The Gerontologist

Interneteko helbide interesgarriak

- www.segg.es
- www.imserso.es
- www.fundaciolacaixa.org

OHARRAK